

## 1. PROIEKTUAREN LABURPENA

“Etxekoak” antzezlan, istorio pertsonal batetik abiatzen da.

Itsasoaz bestalde maitemindu nintzen eta lagunarekin egoteko aukera bakarra ezkontzea izan zen.

Esperientzia honetatik abiatuz, egungo gizarteak eta estatuak sortu eta eraiki dituzten muga eta lege absurduen kritika egitera goaz. Etxekoa / kanpoko dikotomian gaur egun hain presente dugun inmigrazioaren gaia jorratuko dugu.

## 2. PARTE HARTZAILEAK

### KONPAINIA

[Artedrama Arte Eszenikoen Plataforma, ekintza, drama, antzerkia eta artearen lengoaiak ikertu eta sortzeko bokazioarekin jaio zen 2007an Ander Lipusen gidaritzapean.](#) Honen magalean, eta bere proiektu pertsonalenak bideratzeko, Huts Teatroa sortu zen eta "Etxekoak" antzezlanaz izango du bigarren obra.

Bultzatzaile diren egitura hauekin eta hauetan dauden beharginak dira honakoak:

Zuzendaria:	Ander Lipus
Idazlea:	Jon Gerediaga
Aktoreak:	Kristian Etxaluz Javier Barandiaran Maika Etxekopar Ander Lipus
Zuzendari laguntzailea:	Mariya Aneva
Musika:	Asier Ituarte
Argiztapena:	Josep Duhau
Jantziak:	Leire Orella
Eszenografia:	Jose Pablo Arriaga
Panpina eta atrezzoak:	Battitt Halsouet
Kartela:	Aritz Merino
Argazkiak:	Ainhoa Resano
Wen arduraduna:	Roberto Quintana
Administrazioa:	Xabino Alkorta Irantzu Azpeitia Iasone Parada
Banaketa:	Irantzu Azpeitia

### EKIPAMENDUAK

#### ZUMAIA.

Zumaiako Aita Mari Antzokian lan egiteko aukera izan genuen pasa den urteko azaroaren 16tik 21era. Sareako kide den antzoki hau, bere programazioan euskal ekoizpenen alde egiten duen apustuagatik da ezagun eta goraiatua sektorean.

#### HAMEKA.

Hameka Karrikako Arteen Fabrikako Harri Xuri aretoan aritu ginen sorkuntzan maiatzaren 10etik 22ra. Iparraldean emanaldez gain sorkuntza prozesuak bultzatzeko eta babesteko duten eredu hegoaldera hurbildu izanagatik merezitako ospea duen eragilea.

### 3. HELBURUAK

Artedramaren sorrera-sorreratik izan dugun ardura handienetako bat publikoaren sortzea izan da. Urtetan jorratu diren politika kulturelek eraginda ein haundi batean, euskal publiko masarik ez dago, jendarteak antzerkia aisialdiko ekintza gisa perzibitzen du, urruna eta jaso.

Iritzi horren aurka, gure helburutzat dugu antzerkia herritarrei hurbiltzen ahalegintzea, dela sorkuntza prozesuak partekatuz, ikastaroak eskainiz, ekimenak antolatuz...

Ez da beraz esperientzia berria izan guretzat Mugalariak programak eskaini digun hau, baina, pentsatuta genuen moduan, gure bide hori ibiltzen lagundu digu, urrunago iristen, bestela aukera izango ez genukeen herrietan interbenitzen biharko euskal publiko hori sortzea ahalbidetzeko.

Bestetik, orain arte ez bezala, adin tarte berri batekin lan egiteko aukera izan dugu esperientzia honi esker. Gure proposamenak helduentzat izan ohi dira, hori dela eta, beti publiko honi enfokatuta lan egiten dugu. Gaztetxoekin lan egiteak baina, gure lanarekiko erakutsi dituzten kezka, zalantza eta interesak ezagutzeak, sorkuntza prozesuan lagundu digu.

Estreinaldira lan borobil batekin iristeko helburua lortzeko, sorkuntza partekatzeak bidea eman digu pultsua edo arnasa hartu ahal izateko ikusleen erreakzioari.

### 4. PROZESUAREN KONTAKETA FASEKA

- **ABIAPUNTUA ETA AURREKARIAK**

Errauntsak antzezlanarekin hasi ginenetik 2009an, Harri Xurin lan egiteko aukera izan genuen, eta horrek espazioaren erabilera hutsa baino askoz ere gehiago esan nahi du. Frantzia sorkuntza prozesua nola burutzen, babesten eta partekatzen den ezagutu ahal izan genuen, eta ordutik, molde horiek gure ahalmen txikian aurrera eramaten saiatu gara.

Horregatik, deialdi honetan bagenuen esperientzia hau baliatu nahi izan dugu, herri eta adin tarte berrietara iristeko. Gure ohiko jardueran sartuta genituen ekimenak hobetu, eta suposatzen diguten erronka haunditzeko.

Gainera, Mugalariakeko esperientzia honen bultzadaz, proiektu honetatik kanpo ere beste mediazio ekintza batzuk aurrera eramateko hautua egin dugu. Hori horrela, Lapurdin lehen hezkuntzako haur txikiekin egon gara mitologia ardatz hartuta montaje bat prestatzen laguntzen, eta Leioan bertan, non konpainia egoiliarra garen, Andrak emakume taldearekin aritu gara euren urte amaierako antzezlanerako kanpo begirada egiten.

- **GARAPEN FASEA**

-Kronograma

Azaroak 18, asteartea, 17:00-18:30 Zumaiako haur antzerki taldea

Azaroak 18, asteartea, 18:30-20:00 Zumaiako gazte antzerki taldea

Azaroak 25, asteartea, 20:00- 22:00 Zumaiako emakumeen antzerki taldea

Maiatzak 20, asteazkena, 19:30-22:30 Itsasuko AEK

Maiatzak 21, osteguna, Xalbador Kolegioa

Maiatzak 27, asteazkena, 9:30-14:30 Uztaritzeko AEK

Ekainak 2, asteartea, 8:30-12:15 Xalbador Kolegioa

-Saioretako dinamika

Saioen bi perfil izan dituzte. Talde guztiak aurrez egituratuta zeuden, hau da, ez dira ekintza honetarako eratu, eta horrek nolabait errazten du plan baten proposatzea. Talde gazteekin jolasa bultzatu da gehien bat. Jolasetik abiatzea ahotso lantzeko, gorputza eta erritmoak ezagutzeko, arteak izan dezakeen eraldaketa gaitasuna partekatzeke... Talde helduarekin berriz, bestelakoa izan da dinamika. Eurek bazuten dagoeneko antzezlan bat prestatua, eta elkarlana ondoioz, beste norantz eman da justu, hau da, ez dira haiek izan gure ikusle, guk hartu dugu paper hori.

-Arazoak

Mugalariak deialdiko sorkuntza prozesuan gauzatu ditugun bi egonaldiak, hasiera fasekoak izan dira eta ondorioz nahiko laburrak. Horrek eraginda, saio bakarra egin ahal izan dugu talde bakoitzarekin, eta hori pixka bat eskas gelditzen da gure gustorako. Saiatu gara egonalditik kanpo ere hitzorduak lotzen, baina zoritxarrez logistika asko konplikutzen da halakoetan, eta ezin izan ditugu mordera egin.

- **ITXIERA FASEA**

Egindakoa oraindik ez dugu amaitutzat ematen, izan ere, egindako saioren ondoren, espero dugu gure helburuak betetzea, hau da, lortzea emanaldi egunean bidean topatu dugun jende guzti honekin berriro elkartzea.

## 5. JARRAIPENA

Arestian aipatutakoak arrakasta xumea iduri dezakeen arren, uste dugu esperientzia honek bigarren parte bat aipatutako estreinaldi ostean izango duela. Konfidantza dugu egindako kontaktuekin (gurekin izan ditugun gazteak, aretoetako langileak, etxeen jabeak, jatetxeetako arduradunak...) harremana mantentzeko moduan gaudela, eta euren partetik espero dugu gure lana eskaintzen dugunean ikusle gisa nahiz emanaldi osteko solasaldian partaide gisa izango ditugula.

Hamekako kasuan gainera, urrian dugun sorkuntzako azken egonaldirako beste mediazio ekintza baten aukera sortu da Mugalariaki esker. Xalbador kolegioko ikasle eta irakasleek obraren aurrera pausuak ezagutu nahi dituzte eta maiatzean ikusi ahal izan zutenetik noraino iritsi garen ikustera etorriko dira beraientzat espreski egingo dugun entsegu ireki batera.

## 6 BALORAZIOA

- **Ondorioak, ikasketak, zertarako balio izan zaizun esperientziak?**

Uste genuen moduan, antzerkia (arte eszenikoak eta artea oro har) pixka bat urrun sentitzen du biztanleriaren gehiengoak. Komunikazio ekintzek indar handi izan badezakete ere, bertatik bertara egiten diren ekimen hauek dute eragin iraunkor haundiena, pasio izatetik aktiboa sentitzera pasatzen denean ikuslea. Esperientzia honek, hurbiltasun horretan jarduteko asmoa indartu digute.

- **Eraldaketaren bat egon da zuen praktketan? Prozesu hauek zuen praktketan txertatzeko plana duzue?**

Goian aipatu bezala, denbora da Iparraldeko kideen eskutik mediazio ekintzen gauzatzean sartuta gaudela gure sorkuntza prozesuetan. Alde horretatik, jarduera berri bat deskubritzea baino, herri ezberdinetan eta ondorioz adin eta perfil desberdinagoetako taldeekin lan egiteko aukera izan dugu. Piztu zaigu interesa, halako saioetan, antzerki ekintza partekatzeaz haratago, lantzen ari garen gaia bera ere partekatzeko. Hori normalki ezagunen artean egiten dugu, talde txikietan, baina izan daiteke momentua salto hori emateko. Zumaian ia gertatu zen emakume etorkin talde batekin, eta gogoz geratu ginenez, hurrengo antzezlan baterako bide hau saiatzea ez dugu alboratzen.

- **Zeintzuk dira dituzun baliabideak eta beharrak metodologia honekin jarraitzeko.**

Guretzat oso baliogarria da egonaldika lan egitea, erritmo egokia hartzen diogu lanari eta aldi berean urteko beste epe batzuetan gure dedikazioa beste fronte batzuetara bideratzea ahalbidetzen digu. Gainera taldea osatzen laguntzen digu eta kide guztiek produkzioaren alor ezberdinak beren egunerokoan txertatzen; sinisten dugu honek gerora sortzen diren tentsioetan, birako nekean, eragin positiboa duela. Bestetik, sortzaileek elkar ezagutu eta elikatzeko aukera dute, eta azken emaitza borobilagoa da beti.

Horretarako espazioak eta denbora behar dira. Gure kasuan, espazioak lortzeko aukera gehiago badauzkagu, baina mediazioetara dedikatu ahal izateak gastu handia suposatzen du konpainia batentzat. Horregatik komeni litzake ekoizpenerako laguntzak aurreikusten diren bezala, sorkuntza aktiboak partekatzearen beharraz jabetu eta laguntza egonkorrak izatea honetarako ere.

## 7. GLOSARIOA

Etxea

Kreazioa

Hurbiltasuna

8. IRUDITEGIA

